# Bestelako Xedapenak

## NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

### 1912

AGINDUA, 2009ko otsailaren 26koa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuarena, ur eta arrantzako eta urpekaritza profesionaleko nortasun txartelak lortzeko eta emateko prozedura ezartzen duena.

Arrantzako tokiko patroiaren eta kostaldeko patroi balioanitzaren jarduera profesionalerako gutxieneko baldintzak ezartzen dituen maiatzaren 12ko 662/1997 Errege Dekretuak arrantza-ontzietan lanbide jarduera egiteko beharrezko diren gutxieneko ezagupenak eta baldintzak eguneratzeaz gain, lanbideko nortasun-txartelak ere arautzen ditu. Izan ere, titularrek arrantza-ontzi horietan lanbide-jarduera egiteko beharrezko gaitasuna dutela egiaztatzen dute txartelek.

Halaber, merkataritza-itsasketako eta arrantzako zenbait lanbideren egokitasunaren eta titulazioaren baldintza orokorrei buruzko maiatzaren 14ko 930/1998 Errege Dekretuaren 7. eta 8. artikuluetan, ur eta arrantzako lanbide-tituluei eta lanbide-txartelei buruzkoak xedatu dira, eta gainera, arrantza-ontzietan lanbide jarduera egiteko ur eta arrantzako tituluak eta lanbide-txartelak emateko eta berritzeko eskumena autonomia erkidegoei dagokiela ezarri da.

Bestalde, arrantza-ontzietan marinelaren lanbide-jarduera burutzeko behar diren gutxieneko ezagupenak eta baldintzak ezartzen dituen azaroaren 16ko 1519/2007 Errege Dekretuak arautu egiten du marinelaren prestakuntza, eta marinel arrantzalearen lanbide-txartela eskuratzeko gutxieneko baldintzak eta ezagupenak ezartzen ditu. Era berean, autonomia erkidegoek, marinel arrantzalearen lanbide-txartela emanez, txartelaren jabeek kasuan kasuko arauan eskaturikoa betetzen dutela egiaztatuko dute.

Estatuak eman ditu arau horiek guztiak, EKren 149. 1.19. artikuluak arrantza antolatzeko oinarriak emateko aitortzen dion eskumenaren itzalpean.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko urpekaritza profesionalean aritzeko baldintzak ezartzen dituen urriaren 13ko 201/2004 Dekretuak urpekaritzako titulazio profesional berriak eta horien eskuduntzak ezartzen ditu; 4. artikuluan, gainera, lanbide-titulazioak ematea eta berritzea aurreikusten da, eta esaten da xedapen horretan eta berori garatzekoetan ezarritakoaren arabera egingo dela hori.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

### 1912

ORDEN de 26 de febrero de 2009, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se establece el procedimiento para la obtención y expedición de las tarjetas de identidad profesional náutico-pesqueras y de buceo profesional.

El Real Decreto 662/1997, de 12 de mayo, por el que establecen los requisitos mínimos para ejercer la actividad profesional de patrón local de pesca y patrón costero polivalente, además de actualizar los conocimientos mínimos y requisitos necesarios para la obtención de determinados niveles de habilitación para ejercer la actividad profesional en buques de pesca, regula las tarjetas de identidad profesional que acreditan que sus titulares poseen la capacitación necesaria para ejercer su actividad profesional a bordo de determinados buques.

Asimismo, el Real Decreto 930/1998, de 14 de mayo sobre condiciones generales de idoneidad y titulación de determinadas profesiones de la Marina Mercante y del sector pesquero establece en sus artículos 7 y 8 lo relativo a los títulos profesionales y tarjetas profesionales náutico-pesqueras, así como que corresponde a las Comunidades Autónomas competentes la expedición y la renovación de los títulos y las tarjetas profesionales náutico-pesqueras que habilitan para el ejercicio de la profesión en los buques pesqueros.

Por otra parte, el Real Decreto 1519/2007, de 16 de noviembre, por el que se establecen los conocimientos y requisitos mínimos para ejercer la actividad profesional de marinero en buques de pesca, regula la formación del marinero, y establece los requisitos y conocimientos mínimos para obtener la tarjeta profesional de marinero pescador, y que serán las Comunidades Autónomas las que certificarán a través de la expedición de la tarjeta profesional de marinero pescador que los poseedores de la misma cuentan con lo exigido en la norma correspondiente.

Todas estas normas han sido dictadas por el Estado al amparo de la competencia que el artículo 149.1.19 de la CE le reserva para la formulación de las bases de la ordenación pesquera.

Por su parte, el Decreto 201/2004, de 13 de octubre, por el que se establecen las condiciones para el ejercicio del buceo profesional en la Comunidad Autónoma del País Vasco establece las nuevas titulaciones profesionales de buceo y sus atribuciones, y prevé en su artículo 4 la expedición y renovación de las titulaciones profesionales, que se efectuarán en la forma establecida en esa disposición y en las que la desarrollen.

Gainera, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 11ko 290/2005 Dekretuaren 11. artikuluan xedatzen denez, ur eta arrantzaren eta urpekaritza profesionalaren gaineko trebakuntza antolatzea eta kudeatzea Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzari dagozkio; hori dela bide, hauxe

EBATZI DUT:

***1. artikulua***.– Xedea.

Agindu honen bidez, ur eta arrantzako eta urpekaritza profesionaleko nortasun txartelak emateko eta berritzeko eta horien kopiak egiteko prozedura ezartzen da, ondoko titulazio profesional hauek egiaztatzen dituztenak:

– Arrantzako tokiko patroia
– Kostaldeko patroi balioanitza
– Kostaldeko patroia
– Itsas zabaleko patroia
– Itsas mekanikaria
– Itsas mekanikari patroia
– Arrantzako kapitaina
– Sakonera txikiko urpekari profesionala
– Sakonera ertaineko urpekari profesionala
– Sakonera handiko urpekari profesionala
– Urpekari irakasle berezia
– Urpekari zientifikoa
– Kostaldeko arrantzako 1. mailako patroia
– Itsas zabaleko arrantzako patroia
– Lehen mailako itsas mekanikaria
– Itsas mekanikari patroia
– 2. mailako itsas mekanikaria
– Tokiko arrantzako patroia
– Kostaldeko arrantzako 2. mailako patroia
– Kostaldeko mekanikaria
– Marinel arrantzalea
– Urpekaritza profesionaleko antzinako titulazioak

***2. artikulua.***– Txartelaren edukia eta ezaugarriak.

Agindu honen I. eranskinean agertzen den ereduari lotuko zaizkio txartelak.

***3. artikulua.***– Txartelak ematen dituen erakundea.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak emango ditu ur eta arrantzako eta urpekaritza profesionaleko nortasun-txartelak, bere administrazio-zerbitzuen bidez.

***4. artikulua.***– Txartelen ezaugarriak.

Egiaztapen-txartelak pertsonalak eta eskualdaezinak dira, eta titularrari dagokio txartelak erabiltzeko eta zaintzeko erantzukizuna. Beste pertsona batek erabiltzen badu, bildu eta baliorik gabe utziko da, bidezkoa den erantzukizuna eskatzeari kalterik egin gabe. Txartelak ez dira baliozkoak titularraren nortasuna egiaztatzeko eta, beraz, nortasun agiriarekin batera eramango dira beti.

Por su parte el Decreto 290/2005, de 11 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación establece en su artículo 11 que corresponden a la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral entre otras, ordenar y gestionar la formación náutico-pesquera, y el buceo profesional; razón por la cual,

RESUELVO:

***Artículo 1***.– Objeto.

Mediante la presente Orden se establece el procedimiento para la expedición, renovación y obtención de duplicado de las tarjetas de identidad profesional náutico-pesqueras y de buceo profesional que acreditan las siguientes titulaciones profesionales:

– Patrón Local de Pesca
– Patrón Costero Polivalente
– Patrón de Litoral
– Patrón de Altura
– Mecánico Naval
– Mecánico Mayor Naval
– Capitán de Pesca
– Buceador Profesional de Pequeña Profundidad
– Buceador Profesional de Media Profundidad
– Buceador Profesional de Gran Profundidad
– Buceador Instructor Especial
– Buceador Científico
– Patrón de 1.ª clase de Pesca Litoral
– Patrón de Pesca de Altura
– Mecánico Naval de 1.ª clase
– Mecánico Naval Mayor
– Mecánico Naval de 2.ª clase
– Patrón de Pesca Local
– Patrón de 2.ª clase de Pesca Litoral
– Mecánico de Litoral
– Marinero Pescador
– Titulaciones antiguas de buceo profesional

***Artículo 2.***– Contenido y características de la tarjeta.

Las tarjetas se ajustarán al modelo que figura como anexo I a la presente Orden.

***Artículo 3.***– Órgano emisor de las tarjetas.

Las tarjetas de identidad profesional náutico-pesquera y de buceo profesional correspondientes serán emitidas por la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral a través de los correspondientes servicios administrativos del mismo.

***Artículo 4.***– Características de las tarjetas.

Las tarjetas acreditativas son personales e intransferibles, correspondiendo la responsabilidad de su uso y custodia a la persona titular. En el caso de ser utilizada por otra persona, se recogerá y anulará, sin perjuicio de exigir las responsabilidades a que haya lugar. Las tarjetas no son válidas a efectos de acreditar la identidad de la persona titular, debiendo acompañarse en todo momento del Documento Nacional de Identidad.

***5. artikulua.***– Txartelen lurralde-eremua.

Txartelak baliozkoak dira Espainiako estatu osoaren lurraldean, ondoko arau hauetan ezarritakoaren arabera: maiatzaren 12ko 662/1997 Errege Dekretua, arrantzako tokiko patroiaren eta kostaldeko patroi balioanitzaren lanean aritzeko gutxieneko baldintzak xedatzen dituena, ekainaren 25eko 1548/2004 Errege Dekretuaren bidez aldatua; maiatzaren 14ko 930/1998 Errege Dekretua, merkataritza-itsasketa eta arrantza arloetako zenbait lanbidetako egokitasun- eta titulazio-baldintza orokorrei buruzkoa; urriaren 13ko 201/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan urpekaritza profesionalerako baldintzak ezartzen dituena; azaroaren 16ko 1519/2007 Errege Dekretua, marinelaren lanbidea arrantzako itsasontzi handietan egiteko gutxieneko baldintzak eta ezagupenak ezartzen dituena; eta abenduaren 29ko 3391/1981 Errege Dekretua, Estatuko Administrazioak ur eta arrantzaren irakaskuntzaren arloko zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa.

***6. artikulua.***– Txartelak luzatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoak emandako txartelak agindu honen I. eranskinean ezarritako ereduarekin eta ezaugarriekin bat etorriko dira, titulazioen arabera.

***7. artikulua.***– Txartelen baliozkotasuna.

Ur eta arrantzako eta urpekaritza profesionaleko nortasun-txartelek baliozkotasuna izango dute titularrak 50 urte izan arte. Adin horretatik aurrera, bost urtean behin berritu beharko da.

***8. artikulua.***– Txartelak emateko eta berritzeko eskabidea eta agiriak.

1.– Txartelak ematea.

1.1.– Ur eta arrantzako txartelak eskatzeko, hauexek aurkeztu beharko dira:

a) Txartela emateko eskabidearen inprimakia behar bezala beteta (II. eranskina).

b) NANaren fotokopia.

c) Azterketaren ziurtagiri originalak eta kopiak, beste autonomia erkidego batean egin badira azterketak.

d) NANekoen neurriko koloretako argazki bat, grabatu barik.

e) Tasa ordaindu izanari buruzko frogagiria.

f) Itsas libreta eta zenbaki pertsonala agertzen den orriaren fotokopia (lehen orria).

g) Itsas libretan azterketa medikoaren indarraldia agerrarazten deneko orrialdearen fotokopia.

h) Ontziratze-egunak egiaztatzeko, itsas enpresen ziurtagiriak eta ontziratze-aldien gaineko adierazpena aurkeztu beharko dira. Ontziratze-eguntzat onartuko dira Itsas Kapitaintzak eginiko ontziratze-ziurtagiriak

***Artículo 5.***– Ámbito territorial de las tarjetas.

Las tarjetas son válidas en todo el territorio del Estado español según lo establecido en las normas siguientes: Real Decreto 662/1997, de 12 de mayo, por el que se establecen los requisitos mínimos para ejercer la actividad profesional de patrón local de pesca y patrón costero polivalente, modificado por Real Decreto 1548/2004, de 25 de junio; Real Decreto 930/1998, de 14 de mayo, sobre condiciones generales de idoneidad y titulación de determinadas profesiones de la Marina Mercante y del sector pesquero; Decreto 201/2004, de 13 de octubre, por el que se establecen las condiciones para el ejercicio del buceo profesional en la Comunidad Autónoma del País Vasco; Real Decreto 1519/2007, de 16 de noviembre, por el que se establecen los conocimientos y requisitos mínimos para ejercer la actividad profesional de marinero en buques de pesca; y Real Decreto 3391/1981, de 29 de diciembre, sobre traspaso de servicios de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de enseñanzas náutico-pesqueras.

***Artículo 6.***– Emisión de las tarjetas.

Las tarjetas emitidas por la Comunidad Autónoma del País Vasco se corresponderán según las titulaciones con el modelo y características que se establecen en el anexo I de la presente Orden.

***Artículo 7.***– Validez de las tarjetas.

Las tarjetas de identidad náutico-pesquera y de buceo profesional tendrán validez hasta que la persona titular cumpla la edad de 50 años. A partir de esa edad, será necesaria su renovación cada cinco años.

***Artículo 8.***– Solicitud y documentación para la expedición y renovación de las tarjetas.

1.– Expedición de tarjetas.

1.1.– En el caso de expedición de las tarjetas náutico-pesqueras, se deberá presentar:

a) Impreso de solicitud de expedición de tarjeta debidamente cumplimentado (anexo II).

b) Fotocopia DNI.

c) Certificados originales y copias de examen, si han sido realizados en otra Comunidad Autónoma.

d) Una fotografía tamaño carné, en color, sin grapar.

e) Justificante de haber ingresado la tasa correspondiente.

f) Libreta Marítima y fotocopia de la primera página, en la que consta el número personal.

g) Fotocopia de la página de la Libreta Marítima en la que consta la vigencia del reconocimiento médico.

h) Los días de embarque se acreditarán mediante la aportación de los certificados de las empresas navieras y la declaración de los períodos de embarque por la persona solicitante, juntamente con las fotocopias com-

ere. Gainera, Itsas Libretako orrialdeen fotokopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira, adierazitako aldeei dagozkienak. Sektorekoak diren eta itsas arrantzako titulazio bat duten profesionalek azterketa baino lehen eginiko ontziratze-aldiak hartuko dira kontuan.

Arrantzako tokiko patroiari eta itsasbazterreko patroi balioanitzei dagokienez, ez da kontuan hartuko makina- eta zubi-ontziratzeen aldeen bereizketa bi atalak bereizterik ez dagoenean (flota txikia).

i) 50 urtetik gorakoek Itsasoko Gizarte Institutuan ezintasun iraunkor osoari edo absolutuari edo erretiroari dagokion pentsioa jasotzen ez dutela egiaztatzen duen agiria.

j) Erretiroko pentsioa jasotzen dutenek Itsasoko Gizarte Institutuaren ziurtagiria jaso beharko dute, pentsiodunak direla egiaztatzen duena, «itsasontzi handi profesionaletan jarduteko gai ez» dela dioen oharra agerrarazteko.

k) Ondoko titulazioetarako, aurreko mailako lanbide tituluari dagokion lanbide txartela eta kopia bat aurkeztu beharko dira: Arrantza-patroia, itsas zabaleko arrantza-patroia, itsasoko mekanikari nagusia eta 1. mailako itsasoko mekanikaria.

1.2.– Urpekaritza profesionaleko txartelak eskatzeko, ondokoak aurkeztu beharko dira:

a) Txartela lortzeko eskabidearen inprimakia behar bezala beteta (II. eranskina).

b) NANaren fotokopia.

c) NANekoen neurriko koloretako argazki bat, grabatu barik.

d) Tasa ordaindu izanaren frogagiria.

e) Azterketaren ziurtagiri originalak eta kopiak, beste autonomia-erkidego batean egin badira.

f) Kasu bakoitzean, Euskal Autonomia Erkidegoko urpekaritza profesionalerako baldintzak ezartzen dituen urriaren 13ko 201/2004 Dekretuaren 10. artikuluan xedaturiko gaitasun mailak gainditzea (2004ko azaroaren 5eko EHAA, 212. zk.).

2.– Txartelak berritzea.

2.1.– Ur eta arrantzako txartelak berritzeko, ondokoak aurkeztu behar dira:

a) Txartela berritzeko eskabidearen inprimakia behar bezala beteta (III. eranskina).

b) NANekoen neurriko koloretako argazki bat, grabatu barik.

c) Iraungitako txartela; kendu egingo da txartel berria emandakoan.

pulsadas de las hojas de la Libreta Marítima correspondientes a los períodos declarados. Se tendrán en cuenta los períodos de embarque realizados con anterioridad al examen por profesionales del sector que estén ya en posesión de una titulación marítimo-pesquera.

En el caso de Patrón Local de Pesca y Patrón Costero Polivalente, no se tendrá en cuenta la diferenciación de los períodos de embarque de máquina y de puente en los casos en que sea imposible diferenciar las dos secciones (flota menor).

i) Las personas que tengan más de 50 años deben presentar un certificado del Instituto Social de la Marina (ISM) en el que conste que no son pensionistas por jubilación ni invalidez en grado de incapacidad permanente total o absoluta.

j) Las personas que sean pensionistas por jubilación deben aportar un certificado del ISM en el que conste que son pensionistas con objeto de hacer constar la nota «no apto para el ejercicio en buques profesionales».

k) Para las siguientes titulaciones: Capitán de Pesca, Patrón de Pesca de Altura, Mecánico Naval Mayor y Mecánico Naval de 1.ª Clase, será necesaria la presentación de la tarjeta profesional correspondiente al título profesional de nivel anterior y una fotocopia de la misma.

1.2.– En el caso de expedición de las tarjetas de buceo profesional, se deberá presentar:

a) Impreso de solicitud de expedición de tarjeta debidamente cumplimentado (anexo II).

b) Fotocopia DNI.

c) Una fotografía tamaño carné, en color, sin grapar.

d) Justificante de haber ingresado la tasa correspondiente.

e) Certificados originales y copias de examen, si han sido realizados en otra Comunidad Autónoma.

f) Haber superado en cada caso, los niveles de competencia establecidos en el artículo 10 del Decreto 201/2004, de 13 de octubre, por el que se establecen las condiciones para el ejercicio del buceo profesional en la Comunidad Autónoma del País Vasco (BOPV n.º 212, de 5 de noviembre de 2004).

2.– Renovación de tarjetas.

2.1.– En el caso de renovación de las tarjetas náutico-pesqueras, se deberá presentar:

a) Impreso de solicitud de renovación de las tarjetas debidamente cumplimentadas (anexo III).

b) Una fotografía tamaño carné, en color, sin grapar.

c) Tarjeta caducada, que se retirará una vez facilitada la nueva.

d) Tasa ordaindu izanaren frogagiria.

e) Erretiroa edo ezintasun iraunkor osoa edo absolutua dela-eta Gizarte Segurantzatik pentsiorik jasotzen ez dela egiaztatzen duen agiria.

f) Indarreko ontziratze-ziurtagiri medikoa, Itsasoko Gizarte Institutuak luzatua.

2.2.– Urpekaritza profesionaleko txartelak berritzeko, ondokoak aurkeztu behar dira:

a) Txartela berritzeko eskabidearen inprimakia behar bezala beteta (III. eranskina).

b) NANekoen neurriko koloretako argazki bat, grapatu barik.

c) Iraungitako txartela; kendu egingo da txartel berria emandakoan.

d) Tasa ordaindu izanaren frogagiria.

e) Erretiroa edo ezintasun iraunkor osoa edo absolutua dela-eta Gizarte Segurantzatik pentsiorik jasotzen ez dela egiaztatzen duen agiria.

f) Ziurtagiri medikoa, urpekaritza profesionaleko jarduerarako gaitasuna beren beregi adierazten duena.

3.– Txartelaren kopia ematea hondatu, lapurtu edo galdu izanagatik. Hauexek aurkeztu beharko dira:

a) Txartel bikoiztuaren eskabidearen inprimakia beteta (IV. eranskina).

b) NANekoen neurriko koloretako argazki bat, grapatu barik.

c) Tasa ordaindu izanaren frogagiria.

d) Hondaturiko txartela, hala denean (hondaturiko txartela emandakoan luzatuko da txartel berria).

e) Txartela lapurtu, ostu edo galdu izanagatiko salaketaren originala eta fotokopia, hala denean.

***9. artikulua.***– Ontziratze-egunak zenbatzea.

Lanbide tituluak lortzeko eskaturiko prestakuntza praktikoko aldiak zenbatzeko (ontziratze-egunak), inguruabar hauek izango dira kontuan:

– Ontziratze-egunak zenbatzeko data azterketaren data baino lehenagokoa izan daiteke baldin eta eskatzaileak dagoeneko itsas arrantzako titulazio bat badu eta horrek titulu berria lortzeko baliozkotzen badu.

– Arrantzako tokiko patroiaren eta itsasbazterreko patroi balioanitzaren kasuan, ez da kontuan hartuko makina- eta zubi-ontziratzeen aldeen bereizketa bi atalak bereizterik ez dagoenean (flota txikia).

d) Justificante de haber ingresado la tasa correspondiente.

e) Documento acreditativo de no ser pensionista de la Seguridad Social por jubilación ni invalidez en grado de incapacidad permanente, total o absoluta.

f) Certificado médico de embarque vigente expedido por el Instituto Social de la Marina.

2.2.– En el caso de renovación de las tarjetas de buceo profesional, se deberá presentar:

a) Impreso de solicitud de renovación de las tarjetas debidamente cumplimentadas (anexo III).

b) Una fotografía tamaño carné, en color, sin grapar.

c) Tarjeta caducada, que se retirará una vez facilitada la nueva.

d) Justificante de haber ingresado la tasa correspondiente.

e) Documento acreditativo de no ser pensionista de la Seguridad Social por jubilación ni invalidez en grado de incapacidad permanente total o absoluta.

f) Certificado médico que expresamente indique la capacidad para ejercer la actividad de buceador profesional.

3.– Duplicado de tarjeta por deterioro, robo, hurto o extravío. Se deberá presentar:

a) Impreso cumplimentado de solicitud de duplicado de la tarjeta (anexo IV).

b) Una fotografía tamaño carné, en color, sin grapar.

c) Justificante de haber ingresado la tasa correspondiente.

d) Tarjeta deteriorada, en su caso (la nueva tarjeta se facilitará previa entrega de la tarjeta deteriorada).

e) Original y fotocopia de la denuncia por robo, hurto o extravío de la tarjeta, en su caso.

***Artículo 9.***– Cómputo de los días de embarque.

Para el cómputo de los periodos de formación práctica exigida para la obtención de los distintos títulos profesionales –días de embarque- se tendrán en cuenta las circunstancias siguientes:

– La fecha de cómputo de los días de embarque podrá ser anterior a la fecha de realización del examen únicamente en el caso de que el solicitante esté ya en posesión de una titulación marítimo-pesquera que convalide para la obtención del nuevo título.

– En el caso de Patrón Local de Pesca y Patrón Costero Polivalente, no se tendrá en cuenta la diferenciación de los períodos de embarque de máquina y de puente en los casos en que sea imposible diferenciar las dos secciones (flota menor).

***10. artikulua.***– Txartelak ematea eta erregistratzea.

1.– Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak emango ditu identifikazio-txartelak, eta Ur eta Arrantzako Titulazioen eta Urperkaritza Profesionalaren erroldan inskribatuko ditu (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2006ko martxoaren 13ko Aginduaren 12.2. artikulua).

2.– Titularrak eskabidean adierazitako helbidera igorriko dira txartelak, txartel-ematea bermatzen eta egiaztatzen duen bidea erabiliz. Titularrak txartela jaso ezik, Ur eta Arrantzako Titulazioen eta Urperkaritza Profesionalaren errolda kudeatzen duen zerbitzuan utziko da, eta bertan jaso ahal izango du titularrak berak.

3.– Txartela iraungi dela-eta berritu nahi denean, txartel berria jasotakoan, txartel zaharra Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzari igorri beharko zaio hogeita hamar eguneko epean. Bestela, baliorik gabe utziko da txartel berria.

4.– Txartelak eskuratzeko edo berritzeko eskabideak Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren Erregistroan aurkeztu ahal izango dira, Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1 zk.an (01010), bai zuzenean, bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako edozein prozedura erabiliz.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoko egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 26a.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

***Artículo 10.***– Expedición y Registro de las tarjetas.

1.– Las tarjetas de identificación se expedirán por la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral, que las inscribirá en el Censo de Titulaciones Náutico-Pesqueras y de Buceo Profesional (artículo 12.2 de la Orden de 13 de marzo de 2006, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación).

2.– Las tarjetas serán enviadas al domicilio indicado por la persona titular en la solicitud, por medio que garantice y justifique su entrega. En caso de no ser recogida por la persona titular se depositará en el servicio que gestiona el censo de Titulaciones Náutico-pesqueras y de Buceo Profesional donde podrá ser recogida personalmente por la persona titular.

3.– En el caso de renovación de la tarjeta por caducidad, una vez recibida la nueva tarjeta, deberá remitirse la antigua a la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral en un plazo máximo de treinta días. En caso contrario, se procederá a la anulación de la tarjeta nueva.

4.– Las solicitudes para la expedición o renovación de las tarjetas se podrán presentar en el Registro del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, en la calle Donostia-San Sebastián, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, bien directamente, bien por cualquier procedimiento previsto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de febrero de 2009.

El Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

## I. ERANSKINA / *ANEXO I*

### ITSAS ARRANTZAKO TXARTELA
### *MODELO DE TARJETA MARÍTIMO-PESQUERA*

Txartelaren aurreko aldea.
*Anverso Tarjeta*




Txartelaren atzeko aldea
*Reverso Tarjeta*

| | |
|---|---|
| Txartel hau pertsonala da eta ezin zaio inori utzi. Jabea ez den beste edonork erabiltzen badu, jaso eta baliogabetu egingo da, kontuak eskatzeko aukera baztertu gabe.<br>Txartel honek dagokion titulua duela egiaztatzeko ahalmena ematen dio interesatuari, edozein entitate/autoritate nazional nahiz atzerritarraren aurrean, aurkeztu beharrik izan gabe.<br>Txartel hau baliozkoa izan dadin, aldez aurretik titularrak identifikazio-agiria erakutsi behar du (NAN edo Pasaportea). | *Esta tarjeta es personal e intransferible. En caso de ser utilizarla persona distinta, se recogerá y anulará, sin perjuicio de exigir las responsabilidades a que haya lugar.*<br>*Faculta al interesado para acreditar estar en posesión del título correspondiente ante cualquier autoridad o Entidad nacional o extranjera, sin necesidad de presentarlo.*<br>*La presente tarjeta será válida previa identificación del titular (DNI o Pasaporte).* |
| *This is a personal and no transferable card. In case of using a different person one, it will take off and annul, without prejudice to demand the responsibilities to give rise.*<br>*This card allows the holder to credit his possession of the due title toward any authority or national or foreign Organization, with no need to show it.*<br>*The present card will be valid previous identification of the holder (Spanish ID or Passport).* | |

## II. ERANSKINA / *ANEXO II*

### LANBIDE TITULUA/TXARTELA EMATEKO ESKABIDEA
### *SOLICITUD DE EXPEDICIÓN DE TÍTULO/TARJETA PROFESIONAL*

| DATU PERTSONALAK / *DATOS PERSONALES* | | |
|---|---|---|
| 1. abizena / *1.º apellido* | 2. abizena / *2.º apellido* | Izena/*Nombre* |
| | | |
| Ohiko helbidea / *Dirección Habitual* | Jaioteguna / *Fecha nacimiento* | NAN/*DNI* |
| | | |
| Herria / *Población* | PK/*CP* | Telefonoa/*Teléfono* |
| | | |

| | |
|---|---|
| Honako titulua/txartela eskatzen du: ………………….……… ……………………………………………………………… | *Solicita el título/Tarjeta de: …………..………………………… ………………………………........……………………………* |
| Gehituriko dokumentuak: | *Documentación que se acompaña:* |
| ☐ NANaren fotokopia. | ☐ *Fotocopia DNI.* |
| ☐ NANekoen neurriko koloretako argazki bat. | ☐ *Una fotografía tamaño carné, en color.* |
| ☐ Azterketako ziurtagiri originalak eta, hala denean, baliozkotzeen ziurtagiriak. | ☐ *Certificados originales de examen, y en su caso certificados de las convalidaciones.* |
| ☐ Zenbaki pertsonala dakarren Itsas libretaren/Urpeko jardueren libretaren orrialdearen fotokopia konpultsatua. | ☐ *Fotocopia compulsada de la página de la Libreta Marítima/Libreta de Actividades Subacuáticas en la que consta el número personal.* |
| ☐ Azterketa medikoaren indarraldia dakarren Itsas libretaren/Urpeko jardueren libretaren orrialdearen fotokopia konpultsatua. | ☐ *Fotocopia compulsada de la página de la Libreta Marítima/Libreta de Actividades Subacuáticas en la que consta la vigencia del reconocimiento médico.* |
| ☐ Ontziratze-egunak egiaztatzeko, itsas enpresen ziurtagiriak eta ontziratze-aldien gaineko adierazpena aurkeztu beharko dira. Ontziratze-eguntzat onartuko dira Itsas Kapitaintzak eginiko ontziratze-ziurtagiriak ere. Gainera, Itsas Libretako orrialdeen fotokopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira, adierazitako aldeei dagozkienak. | ☐ *Los días de embarque se acreditarán mediante la aportación de los certificados de las empresas navieras y la declaración de los períodos de embarque. También se aceptarán como días de embarque los certificados de embarque realizados por las Capitanías Marítimas. Además, habrá que presentar conjuntamente las fotocopias compulsadas de las hojas de la Libreta Marítima correspondientes a los períodos declarados.* |
| ☐ 50 urtetik gorakoek, Itsasoko Gizarte Institutuan ezintasun iraunkor osoari edo absolutuari edo erretiroari dagokion pentsioa jasotzen ez duela egiaztatzen duen agiria. | ☐ *Las personas que tengan más de 50 años deberán presentar un certificado de ISM en el que conste que no son pensionistas por jubilación ni invalidez en grado de incapacidad permanente total o absoluta.* |
| Vitoria-Gasteizen, ............... (e)ko ...................ren ......... (e)(a)n | *En Vitoria-Gasteiz, a ..…. de ……........……… de …...…* |

Eskatzailearen izenpea / *Firma de la persona interesada*
Landaren eta itsasertzaren Garapeneko zuzendaria / *Director/Directora de Desarrollo Rural y Litoral*
Datu Pertsonalen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak hauxe jakinarazten dizu: inprimaki hau beteta lortu diren zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartu direla tratatzeko. Nahi baduzu, sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkatzeko Legeak ezarritako eskubideak erabil ditzakezu. Horretarako, idazki bat igorri behar zaio Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari, datuen tratamenduaren erantzulea den aldetik, Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1 zk.ra.

*En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este impreso, van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Servicios Generales del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación del Gobierno Vasco, como responsable del tratamiento, y con domicilio en c/ Donostia-San Sebastián, 1, en Vitoria-Gasteiz.*

ESKATZAILERENTZAKO FROGAGIRIA / *JUSTIFICANTE PARA PERSONA INTERESADA*
TITULARRA/*TITULAR*:
TITULUA/TXARTELA EMATEA / *EXPEDICIÓN TÍTULO/TARJETA:*

III. ERANSKINA / *ANEXO III*

TITULU/TXARTEL OFIZIALA BERRITZEKO ESKABIDEA
*SOLICITUD DE RENOVACIÓN DE TÍTULO/TARJETA PROFESIONAL*

| DATU PERTSONALAK / *DATOS PERSONALES* | | |
|---|---|---|
| 1. abizena / *1.º apellido* | 2. abizena / *2.º apellido* | Izena/*Nombre* |
| | | |
| Ohiko helbidea / *Dirección habitual* | Jaioteguna / *Fecha nacimiento* | NAN/*DNI* |
| | | |
| Herria/*Población* | PK/*CP* | Telefonoa/*Teléfono* |
| | | |

| | |
|---|---|
| Honako titulua/txartela eskatzen du: ................................<br>................................................................................ | *Solicita el título/Tarjeta de:* ..........................................<br>................................................................................ |
| Gehituriko dokumentuak: | *Documentación que se acompaña:* |
| ☐ NANaren fotokopia.<br>☐ NANekoen neurriko koloretako argazki bat.<br>☐ Iraungitako txartelaren fotokopia, hala denean (iraungitako txartela eman ondoren luzatuko da txartel berria).<br>☐ Eskatzaileak Gizarte Segurantzan ezintasun iraunkor osoari edo absolutuari edo erretiroari dagokion pentsioa jasotzen ez duela egiaztatzen duen agiria.<br>☐ Itsas libretaren/Urpeko jardueren libretaren orrialdearen fotokopia konpultsatua, azterketa medikoaren indarraldia agerrarazten duena. | ☐ *Fotocopia DNI.*<br>☐ *Una fotografía tamaño carné, en color.*<br>☐ *Fotocopia de la tarjeta caducada (la nueva tarjeta se facilitará previa entrega de la tarjeta caducada).*<br>☐ *Documento acreditativo de no ser pensionista de la Seguridad Social por jubilación ni invalidez en grado de incapacidad permanente total o absoluta.*<br>☐ *Fotocopia compulsada de la página de la Libreta Marítima/Libreta de Actividades Subacuáticas en la que consta la vigencia del reconocimiento médico.* |
| Vitoria-Gasteizen, .. (e)ko .....ren . (e)(a)n | *En Vitoria-Gasteiz, a … de …………… de ……* |

Eskatzailearen izenpea / *Firma de la persona interesada*

Landaren eta itsasertzaren Garapeneko zuzendaria / *Director/Directora de Desarrollo Rural y Litoral*

Datu Pertsonalen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak hauxe jakinarazten dizu: inprimaki hau beteta lortu diren zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartu direla tratatzeko. Nahi baduzu, sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkatzeko Legeak ezarritako eskubideak erabil ditzakezu. Horretarako, idazki bat igorri behar zaio Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari, datuen tratamenduaren erantzulea den aldetik, Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1 zk.ra.

*En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este impreso, van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Servicios Generales del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación del Gobierno Vasco, como responsable del tratamiento, y con domicilio en c/ Donostia-San Sebastián, 1, en Vitoria-Gasteiz.*

| |
|---|
| ESKATZAILERENTZAKO FROGAGIRIA / *JUSTIFICANTE PARA PERSONA INTERESADA*<br>TITULARRA/*TITULAR*:<br>TITULUA/TXARTELA EMATEA / *EXPEDICIÓN TÍTULO/TARJETA:* |

IV. ERANSKINA / *ANEXO IV*

LANBIDE TITULUAREN/TXARTELAREN KOPIA EMATEKO ESKABIDEA
*SOLICITUD DE DUPLICADO DE TÍTULO/TARJETA PROFESIONAL*

| DATU PERTSONALAK / *DATOS PERSONALES* | | |
|---|---|---|
| 1. abizena / *1.º apellido* | 2. abizena / *2.º apellido* | Izena/*Nombre* |
| | | |
| Ohiko helbidea / *Dirección Habitual* | Jaioteguna / *Fecha nacimiento* | NAN/*DNI* |
| | | |
| Herria/*Población* | PK/*CP* | Telefonoa/*Teléfono* |
| | | |

| | |
|---|---|
| Honako titulua/txartela eskatzen du: ……………...……………<br>…………………………………………………………….... | Solicita el título/Tarjeta de: ……………………………………<br>………………………………………………..…………… |
| Gehituriko dokumentuak: | Documentación que se acompaña: |
| ☐ NANaren fotokopia.<br>☐ NANerakoen neurriko koloretako argazki bat.<br>☐ Txartel hondatua, hala denean (txartel hondatua eman ondoren luzatuko da txartel berria).<br>☐ Txartela lapurtu, ebatsi edo galdu izanagatik jarritako salaketaren originala eta fotokopia.<br>☐ Eskatzaileak Gizarte Segurantzan ezintasun iraunkor osoari edo absolutuari edo erretiroari dagokion pentsioa jasotzen ez duela egiaztatzen duen agiria.<br>☐ Itsas libretaren/Urpeko jardueren libretaren orrialdearen fotokopia konpultsatua, azterketa medikoaren indarraldia agerrarazten duena. | ☐ Fotocopia D.N.I.<br>☐ Una fotografía tamaño carné, en color.<br>☐ Tarjeta deteriorada, en su caso. (la nueva tarjeta se facilitará previa entrega de la tarjeta deteriorada).<br>☐ Original y fotocopia de la denuncia por robo, hurto o extravío de la tarjeta, en su caso.<br>☐ Documento acreditativo de no ser pensionista de la Seguridad Social por jubilación ni invalidez en grado de incapacidad permanente total o absoluta.<br>☐ Fotocopia compulsada de la página de la Libreta Marítima/Libreta de Actividades Subacuáticas en la que consta la vigencia del reconocimiento médico. |
| Vitoria-Gasteizen, ............. (e)ko ..................ren ....... (e)(a)n | En Vitoria-Gasteiz, a ..…. de ….……….......…… de …....… |

Eskatzailearen izenpea / *Firma de la persona interesada*

Landaren eta itsasertzaren Garapeneko zuzendaria / *Director/Directora de Desarrollo Rural y Litoral*
Datu Pertsonalen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak hauxe jakinarazten dizu: inprimaki hau beteta lortu diren zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartu direla tratatzeko. Nahi baduzu, sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkatzeko Legeak ezarritako eskubideak erabil ditzakezu. Horretarako, idazki bat igorri behar zaio Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari, datuen tratamenduaren erantzulea den aldetik, Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1 zk.ra.
*En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este impreso, van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Servicios Generales del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación del Gobierno Vasco, como responsable del tratamiento, y con domicilio en c/ Donostia-San Sebastián, 1, en Vitoria-Gasteiz.*

| |
|---|
| ESKATZAILERENTZAKO FROGAGIRIA / *JUSTIFICANTE PARA PERSONA INTERESADA*<br>TITULARRA/*TITULAR*:<br>TITULUA/TXARTELA EMATEA / *EXPEDICIÓN TÍTULO/TARJETA:* |